ELHEKETA = ASTE HUNTAKO SOLAS GAIA

1. Jendea zertako gogoetatua da?
2. Zer diote gehienek bidez?
3. Hedoi gehiena nun lehertu zen?

## (II) UHALDEA 3

Jendea ja gogoetatua, nola behar duen bizi; bihiak ttipituxeak dira alabainan selauruetan eta harriturik badaude bolanjerak, nundik jinen zeien behar den irina. Telegrafa eta telefona hautsiak gelditu dira; kurrier bat baizik ez da izanen egunean, dena ere oinezkoa.

Diote gehienek urte baten lana ukanen dutela bidek antolatzen, baldin ez badute igortzen soldado andana bat, bizpahiru hilabetez zubien bederen xutik ezartzeko.

Hiru herrietako kontseiluak, arrondizamenduko kontseilariak, kontseilari generala, deputatua, oro prefetari eskez daude, bai eta gobernamenduari, ahalik hobekiena.

II

Uhaldearen ondorioer astirekin behatuz, ezagun da Espainiako mendien ixurki aldetik girela izan gehienik joak. Mendi hautarik gorenak, *Bunka* eta *Erratzu*ren artean hamahiru-chun metrez xutitzen den *Hauza* deituak zuen holetan bere kaskorat bildua, astelehen goizean, lehertu den hedoi gehiena.

Aipatu eskualdean zen eraikia uhaitzak errekari beheiti ereman *Koskartia*; eskualde berean, hegal bat galdurik idekia gelditu den *Baztanxurinea*.

## 33. ERRAN. Indicatif. Présent — Imparfait

| Présent | | Imparfait | |
|---|---|---|---|
| Nik diot | = je dis | N. nion | = je disais |
| Hik diok/n | = tu dis | H. hion | = tu disais |
| Zuk diozu | = vs dites | Z. zinion | = vs disiez |
| Harek dio | = il dit | H. zion | = il disait |
| Guk diogu | = ns disons | G. ginion | = ns disions |
| Zuek diozue | = vs dites | Z. ziniotεn | = vs disiez |
| Heiek diote | = ils disent | H. zioten | = ils disaient |

La racine de ce verbe pourrait bien être le latin dicere, dire, ainsi que l'affirme M. INCHAUSPÉ. Verbe Basque, p. 458. mais ce n'est certainement pas l'infinitif capital de ERRAN, comme le dit DOGSON, the Basque verb. p. 13, pour la raison que le verbe dérivé de ERRAN est derrat, derrak/n, derrazu, derra derragu, derrazue, derrate = je dis, tu dis, vs dites, il dit, ns disons, vs dites, ils disent = Indic. Présent.

## (III) ADITZ IKASKUNTZA.

31. harriturik badaude 32. nundik jinen zeien
33. Diote gehienek 34. Ikusten zaituztet

## 31. EGON. Indicatif.

| Présent | | Imparfait |
|---|---|---|
| Ni nago | = je reste | N. nindagon |
| Hi hago | = tu restes | H. hindagon |
| Zu zaude | = vous restez | Z. zinauden |
| Hura dago | = il reste | H. zagon |
| Gu gaude | = ns restons | G. ginauden |
| Zuek zaudezte | = vs restez | Z. zinaudezten |
| Hek daude | = ils restent | H. zauden |

## 32. UKAN. Conjugaison à dble cplt. Indicatif Imparfait

CDS — CIP

Heieri = à eux

| | |
|---|---|
| Nik neien | = je le leur avais |
| Zuk zineien | = vous le leur aviez |
| Harek zeien | = il le leur avait |
| Guk gineien | = ns le leur avions |
| Zuk zineieten | = vs le leur aviez |
| Heiek zeieten | = ils le leur avaient |

CDS — Hari = à lui — CIS

| | |
|---|---|
| Nik nion | = je le lui avais |
| Hik hion (m/f) | = tu le lui avais |
| Zuk zinion | = vous le lui aviez |
| Harek zion | = il le lui avait |
| Guk ginion | = nous le lui avions |
| Zuek ziniotεn | = vous le lui aviez |
| Heiek zioten | = ils le lui avaient |